

GEP Arrasateko barne txapelketa martxan!

2016/10/13

Ikasturtero bezala, MONDRAGON UNIBERTSITATEko fakultate eta kanpus bakoitzak martxan jartzen ditu bere barne txapelketak.

Helburua, ikasleen artean jarduera fisikoa bultzatzea eta MONDRAGON UNIBERTSITATE eta Euskadiko Unibertsitate Kirol Txapelketarako gure ordezkariak topatzea.

Arrasateko kasuan, aste honetan hasi dira areto futbola eta frontenis binakako txapelketak. Datorren asten berriz frontenis banaka, saskibaloia... abian jartzea espero dugu.

Arrasaten guztira 120 ikaslek baino gehiagok eman dute izena eta txapelketak urri eta abendu bitartean jokatu dira.

Bestetik, GEPko Orona Ideo eta Goierriko kanpusetan hurrengo astetan hastea espero den bezala, berdina egingo da MONDRAGON UNIBERTSITATEko beste fakulteteetan.

Argazki gehiago gure [facebookeko orrialdean](#).

